



SAN TELMO ZURE KASA HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERA

ABERE BA Euskaraz jolasean

Museoan badira, ezkutuan, sei abere. Lagunduko diguzu aurkitzen eta asmatzen zeintzuk diren?

Horretarako elementu batzuk emango dizkizugu:

- Hizki bat klabe moduan (animaliaren izenaren hizki bat)
- Museoko bildumako objektu baten detailea zure fitxan (animaliarekin erlazioa duena).

A



Zeintzuk dira jokoaren erregelak?

- Bilatu areto bakoitzean hizki bat. Itsatsita topatuko duzu.
- Irakurri zure fitxan duzun esaldi magikoa eta zein animalia den asmatu.
- Zure fitxan idatzi animaliaren izena. Horiz dagoena, bukaerako izen misteriotsua osatzeko erabiliko duzun hizkia izango da.
- Aretuan bilatu museoko bildumako objektua. Horretarako, fitxan duzun pista erabili. Azken orrian daukazu.
- Bukatzeko, pista bakoitzean atera zaizun **hizki klabea** erabiliz, joko honen bukaeran azaltzen den izen misteriotsua osatu.

Jokoa. Goazen jolastera!

1. pista.

Kokapena: Behe solairua, Aztarnak oroimenean aretoa.

Esaldi magikoa: “*Ur azpian isats eta kanpoan lurrin*”. Zer da?

Azalpena: animalia honen bizarrak oso elastikoak dira. Horregatik emakumeen soinekoak, aterkietarako eta eguzkitakoak egiteko erabiltzen ziren?

Gako-hitza: Osatu hitza animaliaren izenarekin: B _ _ A

2. pista.

Kokapena: Goi klaustroa. Artzantza.

Esaldi magikoa: “*Buztan luze eta belarri motz*”. Zer da?

Azalpena: artzain txakurrak lepoko hau eramaten zuen animalia honen erasoetatik babesteko.

Gako-hitza: Osatu hitza animaliaaren izenarekin: **O** _ _ _ A

3. pista.

Kokapena: Goi klaustroa. Artzantza.

Esaldi magikoa: “*Neguan iletsu eta udaberrian argaltsu*”. Zer da?

Azalpena: animalia honen esnearekin hain gustoko dugun mamia egiten da eta Idiazabalgo gazta gozoa ere bai.

Gako-hitza: osatu hitza animaliaaren izenarekin: **A** _ _ _ A

4. pista.

Kokapena: Goi klaustroa. Arrantza.

Esaldi magikoa: “*Txikia, grisa eta urdin, beti uretan dabil*”. Zer da?

Azalpena: animalia hau arrantzatu eta gero merkatuan saltzen ziren eta garraiorako otar hau erabiltzen zen: “*Ibi-otarra*”

Gako-hitza: osatu hitza animaliaaren izenarekin: **S** _ _ _ **I** _ A

5. pista.

Kokapena: Goi klaustroa. Arrantza.

Esaldi magikoa: “*Kanpotik txuria eta barrutik beltza luze eta argala porrua bezala*. Zer da?

Azalpena: ba ez da porrua baina gustora jaten dugu frijituta edo tinta beltzarekin. Arrantzatzeko amua hauek erabiltzen dira.

Gako-hitza: osatu hitza animaliaaren izenarekin: **T** _ _ _ _ _ _ _ A

6. pista.

Kokapena: Goi klaustroa. Baserria. Argazkiak.

Esaldi magikoa: “*Lodi eta txuri, usaitsu eta zaratatsu*”. Zer da?

Azalpena: baserrietan ohikoa zen animalia, lukainka, txistorra edo haragia jateko.

Gako-hitza: osatu hitza animaliaaren izenarekin: T _ **I** _ _ _ A

7. pista

Orain hitz misteriotsua zein den osatu behar duzu. Hizki bakarra falta zaizu.

Asmatu zein hizki falta zaizun hitz magikoa idazteko.


Pista bat: azkeneko hizkia museoko sarreran topatuko duzu. Museoko sarreran zaudela, eskubian, zabor ontzien gainean.

HITZ MAGIKOA

Orain hizki-klabeak erabiliz osatu hitz klabea

_ _ _ _ _

PISTAK

1 	2 
3 	4 
5 	6 
EMAITZAK:	
Horiz duzu hitz misteriotua sortzeko hizki bakoitza. 1. pista: B A L E A. 2. pista: O T S O A. 3. pista: A R D I A. 4. pista: S A R D I N A. 5. pista: T X I P I R O I A. 6. pista: T X E R R I A. 7. pista: M Hitz misteriotua sortu: <u>S A N T E L M O</u>	